

IRAGARKIA

Osoko Bilkurak 2023ko irailaren 26an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

BIDE PUBLIKOAN TERRAZAK, SALGAI DAUDEN PRODUKTUEN ERAKUSLEKUAK ETA BESTE ELEMENTU LAGUNGARRIAK JARTZEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA. ALEGAZIO EPEA LUZATZEA.

Osoko Bilkurak 2023ko uztailaren 18an egindako bilkuran besteak beste, honako erabaki hauek hartu zituen:

BAT.- Bide publikoan terrazak, salgai dauden produktuak erakuslekuak eta beste elementu lagungarriak jartzea arautzen duen Ordenantzari hasierako onarpena ematea.

BI.- Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko web orrialdean argitaratzea eta jendaurrean jartzea bi hilabetez. Interesdunei ere bi hilabeteko entzunaldia ematea.

Ordenantzaren konplexutasunagatik eta herriko saltokietan izango duen eraginagatik, eragindako eragile guztiek alegazioak aurkezteko aukera izan dezaten, horiek aurkezteko epea luzatzea proposatzen da.

Kontuan hartu da Tokiko Garapen Batzordeak 2023ko irailaren 21ean egindako bilkuran aho batez emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da: **AHO BATEZ**

LEHENA.- Bide publikoan terrazak, salgai dauden produktuak erakuslekuak eta beste elementu lagungarriak jartzea arautzen duen ordenantzaren alegazio epea hamabost (15) lanegun luzatzea.

Hernanin, 2023ko irailaren 29an

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra
Alkatea